


Gizarte Hezkuntzako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN



V. Modulua

Gizarte eta Dinamizazioa eta
ikuspegi komunitarioa

Moduluko gida
Curso2021/22

AURKIBIDEA

1. V. MODULUAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK	5
2. V. MODULUKO IRAKASGAIK	5
3. EGITURA ETA V. MODULUA ARTIKULATZEN DUEN LOGIKA	6
4. V. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN).....	7
4.1. EGINBEHARREKO LANA.....	7
4.2. DILANAREN KRONOGRAMA.....	8
4.3. TALDEAREN PARTAIDEAK.....	8
4.4. PROIEKTUAREN DEFENTSA.....	8
4.5. TXOSTENAREN EGITURA.....	9
4.5.1. EGITURA.....	9
4.5.2. ALDERDI FORMALAK	9
5. DILANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.....	9
5.1. DILANA ONARTZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK.....	11
5.2. EBALUAZIO ERRUBRIKA.....	12
6. KOMUNITATE GARAPENA IKASGAIAREN PROGRAMA.....	12
6.1. KOMUNITATE GARAPENA IRAKASGAITIK DILANARI EKARPENAK	12
6.2. KONPETENTZIAK.....	13
6.3. GAI ZERRENDA	14
6.4. METODOLOGIA.....	14
6.5. EBALUAZIOA	15
6.6. BIBLIOGRAFIA.....	15
7. GIZARTE ETA KULTURA DINAMIZAZIOA IKASGAIAREN PROGRAMA.....	16
7.1. GIZARTE ETA KULTURA DINAMIZAZIOA IRAKASGAITIK DILANARI EKARPENAK	16
7.2. KONPETENTZIAK.....	16
7.3. GAI ZERRENDA	17
7.4. METODOLOGIA.....	17
7.5. EBALUAZIOA	17
7.6. BIBLIOGRAFIA.....	19
8. GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZA IKASGAIAREN PROGRAMA.....	19
8.1. GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZA IRAKASGAITIK DILANARI EKARPENAK	19
8.2. KONPETENTZIAK.....	19
8.3. GAI ZERRENDA	20

8.4. METODOLOGIA.....	20
8.5. EBALUAZIOA	21
8.6. BIBLIOGRAFIA.....	21
9. PRAKTIKUM-AREN PROGRAMA.....	23
9.1. PRAKTIKUM-AREN IRAKASGAIK DILANARI EKARPENAK.....	23
9.2. KONPETENTZIAK.....	23
9.3. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK	24
9.4. METODOLOGIA.....	24
9.5. EBALUAZIOA	24
9.6. DOKUMENTAZIOA.....	25
10. EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK, IKASGAIAREN PROGRAMA	26
10.1. EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK, IKASGAIAREN EKARPENAK.....	26
10.2. KONPETENTZIAK	26
10.3. GAI ZERRENDA.....	26
10.4. METODOLOGIA.....	27
10.5. EBALUAZIOA.....	28
10.6. NAHITAEZKO MATERIALAK.....	29
10.7. BIBLIOGRAFIA.....	
10.7.1. OINARRIZKOA	
10.7.2. HIZTEGIAK	
10.7.3. INTERNETEKO HELBIDE GARRANTZITSUAK.....	

1. MODULUAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK

- a) Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutu eta ulertzea. (GO1).
- b) Egiatzko testuinguruetan sare sozialen eta gizarte proiektuen garapena aztertzea eta interpretatzea, ikuspuntu integratzailetik eta gizarte eta hezkuntza eragileak, prozesuak eta baliabideak antolatzeneko ikuspegitik begiratuta (GO3, GO6, GO9^{1*}).
- c) Taldeko eta banakako elkarlana garatzeko, behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea, gizarte parte-hartzea sustatzeko eta komunitatea garatzeko; hori guztia lanbideko deontologia kodearen gako etikoetan eta errespetuan oinarriturik, eta genero ikuspegia eta erantzukizun profesionala kontuan izanik betiere (GO4, GO5*, GO8*).
- d) Errealitatea gizarteko eta ingurumeneko arazoen ikuspuntutik begiratuta interpretatzea, benetako beharrak identifikatzeko eta hezkuntza proposamenak egiteko iraunkortasuna kontuan harturik (GO3, GO6).
- e) Beren jardueretan modu zuzen eta egokian erabiltzea euskara estandarra, jakinik Goi-mailako Ikasketen tituludunek eragin handia dutela euskararen erabileran eta garapenean.

2. MODULUKO IRAKASGAIAK: GIZARTE DINAMIZAZIOA ETA IKUSPEGI KOMUNITARIOA

IRASTURTE A	IRAKASGAIAK	ECTS KREDITUAK
3.	* Komunitate Garapena (26284)	6
	* Gizarte eta Kultura Dinamizazioa (26287)	6
	* Garapen Jasangarrirako Hezkuntza (26289)	6
	* Praktikum (15346)	12
	* Hautazkoa: euskararen arauak eta erabilerak (25188)	6

*Azpimarratutako gaitasunei dagozkien zeharkako gaitasunak

3. EGITURA ETA V. MODULUA ARTIKULATZEN DUEN LOGIKA

Modulu honen esparruan, jarduera profesionalerako esparru jakin bat kontuan harturik ekingo zaio ekintza profesionalari, komunitate esparrua, haren dinamizazioa eta iraunkortasuna gogoan edukitzeaz gainera, aldaketa prozesuak sortu ahal izateko.

Horretarako, Practicumean kokatuko dira ikasleak, eta praktikan bertan bideratu eta landuko dituzte zeregin profesionalak. Bizi garen testuinguruaren berezko komunitate alderdiarekin lotuko da alderdi enpiriko hori, ekintza profesionaletik dinamizatuko da, ikuspegi jasangarria kontuan edukirik betiere.

30 kreditu ditu moduluak, 3 nahitaezko irakasgai eta Practicum I (12 kreditu), hautazko irakasgai batez gainera.

Bere metodologia garapen propioa du Practicum I-ak, dagokion Gidan ezagutzera ematen dena (ikus Fakultateko web orria), eta berriazko kredituak ditu gainera: 12 kreditu, 300 ordu, eta horietatik 210 aurrez aurrekoak eta 90 ez aurrekoak.

Aurrekoekin loturik dago modulu hau, eta horrenbestez, prestakuntza segidaren barnean, hezkuntzako edozein profesional sar daitekeen testuinguruak, lanbideak eta hezkuntza prozesuak ulertzeko zientzia oinarriez jabetuko da ikaslea, gizarte eta hezkuntza alorreko esku-hartzea hainbat esparrutan aztertzeke aukera izan dezan. Hori guztia, kasu honetan, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak aztertu ahal izateko, hezkuntzaren ikuspegitik begiratuta eta dauden egoerei begira prozedura egokienak erabilia.

Funtsezko hiru ardatz dira Komunitate Garapena, Gizarte eta Kultura Dinamizazioa eta Garapen Jasangarrirako Hezkuntza gaiak, eta aldaketa prozesuak sortzeko aukera ematen diote ekintza profesionalari, komunitate

aldetik, haren dinamizazioaren inguruko ezagutzen eta jasagarritasunaren inguruko informazioaren ikuspegitik begiratuta betiere.

4. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

4.1. Egin beharreko lana

Modulu honen diziplinarteko jardueraren funtsezko helburua gizarte eta hezkuntzako proiektu bat aztertzea eta **proiektu hori hobetzeko proposamenak egitea da. Bakarkako lana izango da.**

Proiektua Practicum Iaren barnean koka daiteke, edo ikasleak ezagutzen duen esperientzia erreal bat erabil daiteke. Lanaren eskema, jarraian aurkezten den hau izango da:

1. DILANaren izenburua.
2. Proiektua hautatu izanaren justifikazioa. Zeintzuk izan dira proiektua aukeratzeko arrazoiak?
3. Proiektuaren deskripzio sintetikoa.

Zer helburu ditu egitasmoak.

4. Hobekuntza proposamenak:
 - 4.1. Zein/zeintzuk da/dira?
 - 4.2. Nola egingo dut? Zein jarduera edo ekintzen bitartez?
 - 4.3. Zer nahi dut lortu? Zein izango da nire proposamenaren eragin?
5. Autoebaluazioa/hausnarketa: zer ikasi dut?
6. Bibliografia.
7. Eranskinak (baleude).

4.2. DILANaren kronograma

ASTEA	EKINTZAK	EZAUGARRIAK
1.	DILANaren aurkezpena	Banakakoa
3.	Taldeen osaketa. Tutoreen esleipena.	Banakakoa
5.	Proiektuaren behin betiko aukeraketa	Banakakoa
8.	Oinarrizko dokumentuaren aurkezpena: perspektiben eta zailtasunen analisia	Banakakoa/taldekoa
11. eta 12.	Hobekuntza proposameneren aurkezpena	Banakakoa/taldekoa
14.	Behin betiko txostena entregatzea	Banakakoa
15.	Ahozko aurkezpenak	Banakakoa

4.3. Taldearen partaideak

Talde bakoitza 3 eta 5 lagunen artean osatuko da.

4.4. Proiektuaren defentsa

Proiektuak lauhilekoko hamabosgarren eskola-asteaz (azken astean) azalduko dira eta tutorearen oniritzia beharko dute aurretik. Proiektuaren defentsa banakoa izango da eta ebaluazioa behintzat V. Moduluko bi irakasleek egingo dute. Ikasle bakoitzak **5-6** minutu izango ditu azalpena egiteko eta beharrezko euskarriak erabili ahal izango dira. Azalpenaren ondoren, irakasleek galdera edota gogoeta batzuk egin ditzakete.

4.5. Txostenaren egitura

4.5.1. Egitura

- Azalak proiektuaren izenburua eta txostenaren egilearen izen-abizenak izango ditu.
- Aurkibidea.
- Proiektuaren aukeraketaren arrazoiak eta justifikazioa.
- Proiektuaren azalpen sintetikoa.
- Hobekuntza proposamenak (lanaren funtsezko atala)
- Bibliografia/Erreferentziak.
- Eranskinak, (baleude).

4.5.2. Alderdi formalak:

- Txostenak 10-12 orri izango ditu.
- Bi aldetatik inprimatua eta ahal balitz paper berziklatuan.
- Hitza eredua: irakurgarria (EHUSerif, Times New Roman, Verdana, Calibri, Arial...). Ez aldatu hitzaren eredua.
- Tamaina: (12). Izenburuentzat (14), eta orri barreneko aipamenak (10).
- Lerro artean: 1.5
- Ertzak: goikoa eta behekoa 2.5 cm; ezkerrekoa eta eskuinekoa 3 cm (Word standar).
- Taulak eta grafikoak zenbatuak, izenbururekin eta iturriekin
- Atalak orri bakoitian hasiko dira.
- APA-ren arauak erabiliko dira zitak eta erreferentziak izendatzeko.

5. DILANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluatuko diren alderdiak:

- a) Kontzeptuen egokitasun maila txostenetan, ahozko azalpenetan eta idatzizko lanetan.
- b) DILANa egiteko prozesuan izandako inplikazio maila etikoa eta pertsonala.
- c) Gizarte eta komunitate ekintza prozesuetan eta horien azterketan genero aldagaia kontuan hartzea.
- d) Berdinen arteko eta mundu profesionalarekiko harremanetan komunikatzeko trebetasunak erakustea.
- e) Hausnarketa eta argudiatze maila, parte hartze maila eta diziplinarteko jardueraren irizpide formaletara egokitzea.
- f) Sormena eta pentsamolde dibergentea planteaturiko kasuei konponbidea ematea.
- g) Informazioa bildu eta tratatzeko modua.
- h) Prozesuaren inguruko gogoeta kritikoaren maila.
- i) Azterketa gauzatzeko modua eta informazioaren interpretazioa.
- j) Publikoentzako ahozko adierazpen egokia izatea eta ideiak azaltzeko hainbat iturri erabiltzea.

5.1. DILAN onartzeko oinarrizko baldintzak

DILAN ONARTZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK					
EDUKIAK	BA I	EZ	FORMATUA	BAI	EZ
1. Txostenak proiektuaren froga dauka			1. Txostenak izenburua egilearen datuak ditu		
2. Txostenak proiektuaren deskripzioa eta garapena dauzka			2. Txostenak orri guztiak zenbatuak ditu		
3. Txostenak hobekuntzaren proposamena dauka			3. Txostenak 10-12 orri ditu		
4. Txostenak irakasgai desberdinen alderdi teorikoak ditu			4. Txostenaren hitzaren tamaina 12koa da		
5. Txostenak autoebaluaketa dauka			5. Txostenaren lerroren tartekoa 1,5 da		
6. Txostenak, gutxienez, 5 dokumentu aipatu behar ditu (liburuak, artikuluak, eta abar)			6. Taulek eta grafikoek zenbatuak daude eta iturriak aipatzen dira		
7. Txostenak etika arauak betetzen ditu (ez da kopiatua izan, ez da plagiatua)			7. Txostenaren orriak zenbatuak daude		
8. Txostenak, sarrera, garapena eta ondorioak ditu			8. Bibliografiak APAren araudia betetzen du		
9. Txostenaren erredakzioa zuzena da (aditzen komuntadurak eta abar)			9. Txostenak generoaren araudia errespetatzen du		
			10. Txostenak, gehienez, 10 akats ortografiko ditu		
BESTE ALDERDI BATZUK					
1. Aurreikusitako epeetan bete da txostena					

5.2. Ebaluazio errubrika

GAITASUNEN KALIFIKAZIOA		0,5	1	1,5	2	2,5	Guztira
Komunikatzeko gaitasuna (%40)	1. Kontzeptuen egokitasun maila txostenetan, ahozko azalpenetan eta idatzizko lanetan.						
	2. Berdinen arteko eta mundu profesionalarekiko harremanean komunikatzeko trebetasunak.						
	3. Hausnartze, argudioak emate eta diziplinarteko jarduerara egokitze maila.						
	4. Publikoentzako adierazpen egokia eta ideiak azaltzeko iturrien erabilera.						
Proiektuaren diseinua eta gauzatzea. (%40)	5. Azterketa gauzatzeko modua eta informazioaren interpretazioa.						
	6. Informazioa bildu eta tratatzeko modua.						
	7. Prozesuaren inguruko gogoeta kritikoaren maila.						
	8. Sormena eta pentsamolde dibergentea planteaturiko kasuei konponbidea ematea.						

Konpromisoa (%20)	9. DILANa egiteko prozesuan izandako inplikazio maila etikoa eta pertsonala						
	10. Gizarte eta komunitate ekintza prozesuetan genero aldagaia kontuan hartzea.						
Azken kalifikazioa							
Talde ebaluatzailearen oharrak:							

Ahozko aurkezpenak, beraz, DILANaren %40a balioko du, eta lan idatziak %60a.

6. KOMUNITATE GARAPENA IKASGAIAREN PROGRAMA

3. ikasturtea – 1. Lauhilabetea – 6 Kreditu

Irakasleak: Aitor Garagarza

Hezkuntza Zientziak Saila

6.1. Komunitate Garapena irakasgaitik DILAN-ari ekarpenak

Irakasgai honek bagaia teoriko-praktikoak eskaini nahi dizkie ikasleei komunitatearen egungo egoeraren eta hezkuntza esparruarekin duen loturaren inguruan, testuinguru orokorrean eta tokikoan betiere. Horrenbestez, udal politiken hedadura, herritarren parte hartzea, eta komunitate garapenaren alderdi metodologikoak, horiexek izango dira zentro edo zerbitzu jakin batean, ekintza profesionalaren praktikarekin loturik dagoen gai honen ekarpenetako batzuk.

6.2. Konpetentziak

- a) Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen oinarri teorikoak ezagutu eta ulertzea.
- b) Egiatzko testuinguruetan sare sozialen eta gizarte proiektuen garapena aztertzea eta interpretatzea, ikuspuntu integratzailetik eta gizarte eta hezkuntza eragileak, prozesuak eta baliabideak antolatzeke ikuspegitik begiratuta.
- c) Elkarlana garatzeko behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea, gizarte parte hartzea sustatzeko eta komunitatea garatzeko; hori guztia lanbideko deontologia kodearen gako etikoetan eta errespetuan oinarriturik, eta genero ikuspegia eta erantzukizun profesionala kontuan izanik betiere.
- d) Errealitatea gizarteko eta ingurumeneko arazoen ikuspuntutik begiratuta interpretatzea, benetako beharrak identifikatzeko eta hezkuntza proposamenak egiteko jasagarritasuna kontuan hartuta.

6.3. Gai zerrenda

<p>1. Komunitate Garapenaren hastapenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitate Garapenerako oinarritzko kontzeptuak. • Komunitate alderdiaren aurrekariak. • Hezkuntza alderdia Komunitate Garapenean.
<p>2. Komunitatearen egungo egoera eta hezkuntza esparruarekiko lotura</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitatearen definizio batzuk gaur egun eta hezkuntza esparruarekiko lotura. • Komunitario izate hori suspertzea. • Komunitate Garapena, gizartean eta hezkuntzan esku hartu eta eraldatzeko tresna gisa.
<p>3. Komunitate Garapena esparru orokorrean eta tokikoan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitate Garapena egungo globalizazio esparruan. • Toki esparrua eta esparru orokorra: globalizazioa hiriaren testuinguruan. • Egungo Ongizate Egoera Komunitate Garapenerako jarduera esparru gisa.
<p>4. Komunitate Garapena eta udal politikak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitate Garapena eta udal politikak. • Gogoeta batzuk hiriaren eta hiritarren inguruan. Komunitatea eta udalerria: hiriko beharrei erantzuna emateko baliabideak. • Hiri hezitzaileak eta hiria hezteko proiektuak: HHPak
<p>5. Komunitate Garapena eta herritarren parte hartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren parte hartzea lan tresna gisa. • Ekintza parte hartzailearen abantailak eta zailtasunak.

	<ul style="list-style-type: none"> • Demokrazia ordezkatzaileria eta demokrazia parte hartzailea: egungo egoeraren berrikuspena herritarren parte hartzeari dagokionean. • Herritarrek parte hartzeko proiektuak.
6. Komunitate Garapenaren metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitate Garapenaren metodologia • Komunitatea aztertzeke eta sustatzeko ereduak eta estrategiak. • Diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea eta ebaluazioa. • Ikerketa, ekintza, parte-hartzea.

6.4. Metodologia

Hainbat metodologia erabiliko dira planteatutako helburuak lortzeko: irakaslearen azalpen klaseak, ikasgelako jarduerak banaka eta taldeka (irakurketak, eztabaidak, elkar jartze lanak, ikasleek ikasgeletan egingo dituzten aurkezpenak...), lan praktikoak, aurrez aurrekoak ez diren lanak eta abar. Metodologia horietako gehienek elkarlana eskatzen dute eta lan horiek ikasgelan egingo dira talde "egonkorretan". Hasiera batean bederen, V. moduluaren DILANerako osatutako taldeak izango dira.

Talde bakoitzak egingo duen koaderno-txostenean jasoko dira eginiko lanen emaitzak. Taldeak egindakoa bakarrik jaso behar du txosten horrek, eta ez irakasleak eskainitako materialak.

6.5. Ebaluazioa

Ebaluazioa hobekuntza tresna bat izango da ikasturtean zehar, beraz, ezaguera ikasitakoak ebaluatuko dira, konpetentziak, eta irakaslearen

hausnarketa kritikoak. Gainera, jarrera positiboa beste lagunarekiko eta irakasgaiarekiko ere, ebaluatuko dira. Ondorioz, ebaluazioa ondorengo izango da:

- Ikasle ez presentzialentzat: azterketak %100

Ikasle presentzialak (ikasleek %80ko asistentzia bete beharko dute).

- Azterketak %50
 - DILAN-ak: %25
 - Eguneroko lana, irakasgaiaren proiektua: %25
- Salbuespenak:
 - Azterketa egiten ez bada, deialdiari uko egiten zaiola ulertuko da.
 - Amaierako proba egin nahi duen eta aurrez aurrekoa ez den ikasleak, idatziz aurkeztu ahal izango du uko egitea, azterketak hasi aurretik.
 - Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <aurkezteke> izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

6.6. Bibliografia

BAUMAN, Z. (1998). *La globalización. Consecuencias humanas*. Buenos Aires: F.C.E.

BAUMAN, Z. (2003). *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*. Madrid: Siglo XXI.

BORJA, J. y CASTELLS, M. (1997). *Local y global. La gestión de las ciudades en la era de la información*. Madrid: Taurus.

CÉSPEDES, J.M. (2001). La participación ciudadana desde el ámbito municipal, en Marchioni, *Comunidad y Cambio Social. Teoría y praxis de la Acción Comunitaria*. Madrid. Editorial Popular.

GOMÁ, R.; BRUGUÉ, Q. (2002). La educación en el marco de los servicios personales locales, en SUBIRATS, J: *Gobierno Local y Educación*. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela. Barcelona: Ariel.

MARCHIONI, M. (1999). *Comunidad, participación y desarrollo. Teoría y metodología de la intervención comunitaria*. Madrid: Popular.

MARCHIONI, M. (2001). *Comunidad y cambio social. Teoría y praxis de la acción comunitaria*. Madrid: Popular.

NOGUEIRAS MASCAREÑAS, L. M. (1996). *La práctica y la teoría del desarrollo comunitario: descripción de un modelo*. Madrid: Narcea.

REZSOHAZY, R. (1988). *El desarrollo comunitario participar, programar, innovar*. Madrid: Narcea.

ALGUACIL GÓMEZ, J. (2000). Ciudad, ciudadanía y democracia urbana en *Documentación Social*, n ° 119, 157-177.

CERVILLA, P. (2000). Las ciudades frente a los restos de la globalización y la integración europea, en *Ábaco*, n ° 23, 32-42.

FUNES, J.M. (1994). La dimensión social del altruismo, en *Sociedad y Utopía*, n ° 4, 191-254.

GONZÁLEZ SÁNCHEZ, M. (2002). La formación de ciudadanos críticos. Una puesta por los medios, en *Teoría de la Educación*, n ° 14, 207-233.

<http://www.redcimas.org/>; <http://www.unilco.org.es/>;

<http://revista-redes.rediris.es/>; <http://www.insna.org/>; <http://www.oidp.net>

7. GIZARTE ETA KULTURA DINAMIZAZIOA IKASGAIAREN PROGRAMA

3. Ikasturtea – 1. Lauhilabete – 6 Kreditu
Irakaslea: Asier Huegun
Didaktika eta Eskola Antolakuntzaren Saila

7.1. Gizarte eta Kultura Dinamizazioa irakasgaitik DILANari ekarpenak

Irakasgai honen bidez gizarte eta kultura dinamizazioaren kontzeptuaren eta esperientzien hurbilketa bat eskainiko diegu ikasleei, gizarte aldaketa eta eraldatze prozesuei arreta berezia emanez, eta baita komunitate zerbitzu, proiektu edo programa batean gizarte hezitzaileak ekintza profesionalean duen zereginari ere.

7.2. Konpetentziak

- a) Elkarlana garatzeko behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea, gizarte parte-hartzea sustatzeko eta komunitatea garatzeko; hori guztia lanbideko deontologia kodearen gako etikoetan eta errespetuan oinarriturik, eta genero ikuspegia eta erantzukizun profesionala kontuan izanik beti ere.
- b) Gizarte eta hezkuntzako gai buruzko ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak ahoz adierazteko gai izatea, baliabide didaktikoak aintzat hartuz.
- c) Laneko dokumentuak idazteko gai izatea, hainbat testuingururi buruzkoak eta askotariko irakurleei egokituak irizpide formalak errespetatuz.
- d) Etengabeko prestakuntzarako jarrera ona izatea, gizarte eta hezkuntzako eskuhartzean eta laneko garapenean hobetzen laguntzeko.

- e) Lan taldeetan ardurazko jarrera agertzea eta etikaz jokatzeko, talde beraren potentzialtasunean sakonduz, eta zailtasunak eta konponbideak azpimarratuz.

7.3. Gai zerrenda

<p>1. Kultura dinamizazioaren kontzeptura eta esperientzietara hurbiltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte eta Kultura Dinamizazioaren ezaugarriak XXI. mendean. • Dinamizazio proiektu mugiarazleak: ezaugarriak eta bidera daitezkeen ekintzak.
<p>2. Aldaketa prozesuak gizarte eta hezkuntza testuinguruetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte beharretatik proiektu kolektiboetara. • Aldaketa eragiten dituzten teoriak eta ekintza kolektiboen azterketa. • Aldaketa prozesuen deskribapena. • Aldaketa prozesuek taldean eta hezitzailearengan dituzten eragina.
<p>3. Gizarte eta kultura dinamizazioan esku hartzeko esparruak eta prozesuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ideia alternatiboak sortzeko prozesua dinamizazio soziokulturalari begira. • Parte-hartze prozesuak eta dinamizazioa.
<p>4. Gizarte hezitzailearen zeregina gizarte eta kultura dinamizazioan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte konpromisoa eta laguntasuna. • Ikuspegi etikoa eta Gizarte eta Kultura Dinamizazioa. • Hezitzailearen ekintzaren eragina Hezitzailearen ekintzaren eragina

7.4. Metodologia

Gure irakasgaia lan mintegi moduan hartuko dugu, talde bakoitzaren dinamikan arreta jarriko dugu, baita koordinatu beharko ditugun lan kolektiboetan ere. Saiok teoriko-praktikoak izango dira, irakurketen, taldeka egingo diren elkarriketen, eztabaiden, irakasleen azalpenen, eta norbanakoaren praktikaren eta esperientziaren bidez gaitasunak eskuratu ahal izateko.

7.5. Ebaluazioa

Klasera agertzen diren ikasleentzat (ikasleek %80ko asistentzia bete beharko dute): taldekako ebaluazioa zein banakakoa tartekatuko dugu.

- **Taldeko lana (notaren %45):** dinamizazio soziokulturalari buruzko talde-diskurtsoa eraikitzea. Dokumentuak bi zati izango ditu:
 - Lehenengoan, taldeak kontzeptu-mapa bat aurkeztuko du (orrialde bat). Mapa horrek galdera honi erantzun beharko dio: zer funtsezko elementu ditu GKDk hezkuntza-testuinguru jakin batean, eta zer lotura dute haien artean? Mapan edo eskeman, taldeak beharrezko ideiak, hitzak eta kontzeptuak erakutsiko ditu, eta elkarrekin lotuko ditu. Talde bakoitzak aukeratuko du testuingurua. Zati hau 9. astean entregatuko da egelan.
 - Bigarren zatian, taldeak mapa garatuko du eraikitako talde-diskurtso batean (elementu garrantzitsuenak, haien elkarrekintzak); eta, era berean, galdera honi erantzun dio: zer funtzio du gizarte-hezitzaileak GKDn? Hau da, dinamizazio soziokulturalaren birformulazio eta berreraikuntza teoriko eta esperientzialaren emaitza izango da talde-lana. Lana egiteko, gelan egindako ariketak, ikusitako bideoak, irakurritako testuak, ikasgelako eztabaidak eta esperientziak baliatuko ditu taldeak.Lanaren bigarren zatiak 7 orrialde izango ditu. Taldeko lana ohiko deialdiaren azterketa eguna baino lehen entregatu beharko da eGela plataforman. Taldeak 3-4 kidez osatutakoak izango dira.
- **Bakarkako lana (notaren %30):**
Ikasle bakoitzak proposatzen diren praktikak egingo ditu gelan eta eGela

igoko ditu praktika bakoitzerako zehaztutako epean.

- **DILANa:** notaren %25a

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <aurkezteke> izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Klasera etortzen ez dena: azterketa idatzia eta froga praktikoa

7.6. Bibliografia

ANDER-EGG, E. (1990). *Repensando la Investigación- Acción- Participativa. Comentarios, críticas, sugerencias*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ALGUACIL, J. (2003). *Ciudadanía, ciudadanos y democracia participativa*. Madrid: Fundación César Manrique.

AZKARRAGA, J. (2014). "Harrigintza" berria. Apunteak hazkundeko-osteko euskal herrigintzaz. *Jakin*, 202, 1-33

DUMAS, B.; SÉGUIER, M. (1997). *Construire des actions collectives. Développer les solidarités*. Lyon: CS.

HARARI, N.Y. (2019). *Sapiens. Gizadiaren historia labur bat*. Donostia. Erein.

MARCHIONI, M. (2001). *Comunidad y cambio social: Teoría y praxis de la acción comunitaria*. Madrid: Popular.

MEJIA, M.H. (s.f.) Manual de gestión cultural para voluntarios. VNU-PNUD, en http://educaciotransformadora.files.wordpress.com/2012/01/manual_voluntarios.pdf (III, 2014)

NAVARRO, V.; TORRES, J.; GARZÓN, A. (2011). *Hay alternativas. Propuestas para crear empleo y bienestar social en España*. Madrid: Sequitur-ATTAC.

http://www.sequitur.es/wp-content/uploads/2011/10/hay_alternativas.pdf

ORCASITAS, J. R. (1997). La detección de necesidades y la intervención socioeducativa. VVAA Las necessitats educatives: present i futur. *Revista Educar*, 21, 67-84, en <http://www.raco.cat/index.php/educar/article/viewFile/20675/20515>

PALLARÉS, M. (1977). *Técnicas de grupo para educadores*. Madrid: ICCE.

RES. REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL https://eduso.net/res/wp-content/uploads/2020/11/res_31.pdf

SANZ, J. (2017). Cómo pensar el cambio hoy. Cuadernos 203, 3-34.

SOLER, M. (2016). La animación sociocultural. Una estrategia para el desarrollo y empoderamiento de comunidades. Barcelona: UOC.

8. GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZA IKASGAIAREN PROGRAMA

3. Ikasturtea – 1. Lauhilabetea – 6 Kreditu
Irakaslea: Itsaso Arocena
Didaktika eta Eskola Antolakuntzaren Saila

8.1. Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren irakasgaitik DILANari ekarpenak

Gizakiaren gizarte garapenaren eta ingurumen eraginaren arteko lotura ezagutarazi nahi dugu irakasgai honen bidez. Garapen jasangarriaren kontzeptua eta dituen inplikazioak azalduko zaizkio ikasleari, gizarte dinamizaziorako trebetasunak eskura ditzan komunitate ikuspegitik begiratuta. Irakasgaiak giza garapena, bizi kalitatea eta garapen komunitarioa aztertzen ditu.

8.2. Gaitasunak / ikaskuntza emaitzak

Ikasgaia gainditzeko, ikasleak gaitasun hauek menperatu beharko ditu :

- Gizarte eta hezkuntzako gaiet buruzko ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak ahoz adierazteko gai izatea, baliabide didaktikoak aintzat hartuz.
- Elkarlana garatzeko behar diren gizarte trebetasunak erabiltzea, gizarte parte-hartzea sustatzeko eta komunitatea garatzeko; hori guztia lanbideko deontologia kodearen gako etikoetan eta errespetuan oinarriturik, eta genero ikuspegia eta erantzukizun profesionala kontuan izanik beti ere.
- Laneko dokumentuak idazteko gai izatea, hainbat testuingururi buruzkoak eta askotariko irakurleei egokituak irizpide formalak errespetatuz.
- Lan taldeetan ardurazko jarrera agertzea eta etikaz jokatzeko, talde beraren potentzialtasunean sakonduz, eta zailtasunak eta konponbideak azpimarratuz.

8.3. Eduki teoriko-praktikoak

1. Gaia: Garapena eta jasangarritasuna: Oinarrizko kontzeptuak
 - Mugimendu ekologistatik jasangarritasunera

- °Denbora lerroa
 - °Gertakizun garrantzitsuak
2. Gaia: Hirigintza jasangarria
- °Espazio sozio-hezitzaile jasangarrien diseinua
3. Gaia: Aztarna soziala
- °Garapenaren aztarna soziala
 - Ekofeminismoa
4. Gaia: Garapen jasangarrirako hezkuntza
- Baliabideak eta programak
 - Praktika onak jasangarritasunerako hezkuntzan

8.4. Metodologia

- Arlo teorikoa eta praktikoa landuko dira
- Proiektuka lan egingo da, talde lana bultzatuz.

8.5. Ebaluaketa

Ohiko deialdia: ebaluazio jarraiari uko egiten dioten ikasleek eta azterketa egitea erabakitzen dutenean, titulazioko arduradunari jakin arazi behar diote idatzi baten bitartez. Ebaluazio jarraiari uko egiten dioten ikasleek eta azterketa egitea erabakitzen dutenean, titulazioko arduradunari jakin arazi behar diote idatzi baten bitartez.

Taldeka: Bi emangarri, lauhilabetean zehar entregatuko direnak

Banaka: Azterketa lauhilabete amaieran.

BANAKA	TALDEKA	DILANA
%35	%40	%25

Ezohiko deialdia: Azken froga

Uko egin nahi bazaio, ez etortzearekin froga egunean nahiko da.

8.6. Lan materiala

Egelan aurkituko dugu.

Bibliografia

- Gil Pérez D., Vilches A., Toscano Grimaldi J.C. y Macías Álvarez, O. (2006). Década de la Educación para un Futuro sostenible (2005-2014): Un punto de inflexión necesario en la atención a la situación del planeta. Revista Iberoamericana de educación, 40: 125-178.
- Marten G.G. Ecología Humana: Conceptos Básicos para el Desarrollo Sustentable. Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente.
- Mckeown, R. (2002): Manual de Educación para el Desarrollo Sostenible. Centro de Energía, Medio Ambiente y Recursos, Universidad de Tennessee.
- Mesa Peinado, M. (2000). La educación para el desarrollo: entre la caridad y la ciudadanía global. Papeles, 70: 10-26. (Enlace)
- Morenoi, J. L. (2012). Ayuntamientos y desarrollo educativo. Madrid: Popular.
- Murga, M. A y Novo, M. (2008). El desarrollo sostenible como eje fundamental de la educación ambiental. Sostenible: 10, 29-41. (Enlace)
- Novo, M. (2003): La educación ambiental: bases éticas conceptuales y metodológicas. Editorial Universitas, Madrid.
- Pérez, B., Carrillo, E. (2000). Desarrollo local. Manual de uso. Madrid: ESIC.
- Schalock, R. y Verdugo, M. A. (2002). Calidad de vida. Manual para profesionales de la educación, salud y servicios sociales. Madrid: Alianza.
- Verdugo, M. A. (2006). Cómo mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad. Salamanca Amarú.
- Aramburu, F. (2000). Medio Ambiente y Educación. Ed. Síntesis Educación, Madrid.
- Campbell, B. (1996): Ecología humana. Salvat, Barcelona.
- Sureda, J. y Comas Forgas, R. (2005): Fuentes de información y documentación a través de Internet para investigadores en educación. ORG, Madrid.

- Val, A. del (1993): El libro del reciclaje. Manual para la recuperación y aprovechamiento de las basuras. Integral, Barcelona.
- VVAA (2008): Apostando por lo humano: la educación para el desarrollo en la Universidad. Círculo Solidario de Euskadi, Bilbo.

Aldizkariak:

- Aula de innovación educativa
- Hitza Revista de Educación ambiental para la comunidad escolar
- Revista Iberoamericana de Educación

Interneteko helbide interesgarriak:

- Educación para el Desarrollo Sostenible. Libro de consulta. <http://ht.ly/bZoWR>
- Ecología, Recursos para el aula.: http://www.natureduca.com/cienc_indice.php
- Investigaciones en la década de la educación para el desarrollo sostenible http://www.magrama.gob.es/es/ceneam/grupos-de-trabajo-y-seminarios/inv-ed-amb/contenido_investigaciones_decada_tcm7-13519.pdf
- Ministerio de Medio Ambiente. <http://www.nodo50.ix.apc.org.aedenat> (página de enlaces de interés en EDS)
- CEIDAS: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/did7/es_2058/d7_c.html. Servicios de apoyo a la educación ambiental del Departamento de Educación Universidades e Investigación)
- CENEAN Centro Nacional de Educación Ambiental <http://www.magrama.gob.es/es/ceneam/default.aspx> del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente
- UNESCO la EDS <http://www.unesco.org/new/es/our-priorities/sustainable-development/>
- Década por una educación para la sostenibilidad <http://www.oei.es/decada>

9. PRAKTIKUMAREN PROGRAMA

3. Ikasturtea – 1. Lauhilabetea – 12 Kreditu
Sailak: Didaktika eta Eskola Antolakuntza eta, Hezkuntzako Ikerkuntza eta
Diagnosi Metodoak

9.1. Praktikum irakasgaitik DILANari ekarpenak

Gai honek gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen egiazko testuinguruetan kokatu nahi ditu ikasleak. Orain arte landutako gaitasunen

azterketatik abiatuko gara, lana hiru alditan aurrera eramateko:

- a) Zentroetara hurbildu aurreko kokapena, hausnarketa eta azterketa.
- b) Esperientzien hausnarketa eta azterketa landa-praktiketan.
- c) Lortutako ikaskuntzen sintesia.

Banaka nahiz mintegietan eta talde zabalean egingo da lana. Praktikum lek testuinguru (instituzioak, zerbitzuak...) egokiak eskainiko dizkio V. Moduluaren MDJ-DILANri bertan kokaturiko proiektua/programa aztertzeke, eta azterketa hori bideratzeko lanabesak eta osagaiak emango dizkio halaber.

9.2. Konpetentziak.

- a) Aldez aurreko prestakuntzaren eduki eta gaitasunen eta haien bideratze praktikoaren arteko lotura sortzea.
- b) Harremanetarako eta komunikaziorako trebetasunak agertzea.
- c) Jarduera arloen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea, modu orokorrean, elkarlanaren dinamikari jarraituz.
- d) Lanbidearen deontologia kodearen araberrako jarrera etikoak erakustea.
- e) Gizarte Hezkuntzako profesionalen lan profesionalaren inguruko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, ahoz nahiz idatziz, eta baita bere praktikak kokatuta dauden erakundeen kulturen ingurukoak ere.

9.3. Aurreikusitako ikaskuntzen emaitzak

- a) Aldez aurreko trebakuntzaren edukiak aztertzea, ulertzea eta Gizarte Hezkuntzako testuinguru, zentro eta praktikekin erlazionatzea.
- b) Hezkuntza lanbidearekiko konpromiso etiko eta deontologikoa hartzea, giza eskubideen errespetutik abiatuta.
- c) Taldean lan egiteko eta komunikatzeko trebetasunak erakustea.
- d) Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko eremu profesionalen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea.

e) Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzean, ezaugarriak (profil profesionalak) zehaztea.

f) Ikaskuntza testuinguruetan gauzatu den gogoeta prozesuaren eta prozesu horren ondorioen berri ematea, argudioak emanaz.

9.4. Metodologia

Bi fasetan egingo da Praktikum I-a:

1. Fasea (2 kreditu ECTS: 50 ordu: 35 ordu aurrez aurrekoak, eta 15 ordu ez aurrekoak). Fakultatean egingo da. Honen helburua da aldez aurretik jasotako prestakuntza konpetentziak II. Fasearekin lotzea, horren inguruan gogoeta eginez, tresnak garatuz, eta zentroen nahiz eskarmentudun ikasleen aurkezpenen... bidez.

2. Fasea (10 kreditu ECTS: 250 ordu: 175 ordu aurrez aurrekoak eta 75 ordu ez aurrekoak). Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile "behatzaile" papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

9.5. Ebaluazioa

Praktikum Iaren prozesu osoan zehar egingo da ebaluazioa. Kalifikazio batean jasoko da azkenean. Kalifikazio horretarako adierazleak izango dira Fakultateko jarduera guztietara aiutatzea, komunikatzeko eta harremanetarako trebetasunak erabiltzea, practicumaren Memoria, Fakultatean nahiz Praktiketako Zentroan egindako elkarlana, ...

9.6. Dokumentazioa

Gizarte Hezkuntzako Gradu Prakticum I-en Gida.

<http://www.filosofia-hezkuntza-zientziak.ehu.es/p246->

[content/eu/contenidos/enlace/fce_indice_educacion_social/eu_educacio/adjuntos/gidak/2012-13/13-3-](content/eu/contenidos/enlace/fce_indice_educacion_social/eu_educacio/adjuntos/gidak/2012-13/13-3-19%20EUSK%20GUIA%20PRACTICUM%20E%20SOCIAL.pdf)

[19%20EUSK%20GUIA%20PRACTICUM%20E%20SOCIAL.pdf](content/eu/contenidos/enlace/fce_indice_educacion_social/eu_educacio/adjuntos/gidak/2012-13/13-3-19%20EUSK%20GUIA%20PRACTICUM%20E%20SOCIAL.pdf)

Ikasgaiaren programa xehea.

10. EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK, IKASGAIAREN PROGRAMA

3. Kurtsoa – 1.Lauhilabetea – 6 Kreditu
Irakaslea: Joana Garmendia
Saila: Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa

10.1. “Euskararen Arauak eta Erabilerak” irakasgaiaren ekarpenak

MDJ-DILAN idazten ari diren bitartean ikasleei aholkularitza ematea, beren lanetan hautazko irakasgaiaren edukiak behar bezala aplikatu ditzaten eta lan horiek bete ditzaten hizkuntza zuzen eta egokiaren eskakizunak.

10.2. Konpetentziak

- a) Goi mailako tituludunek, euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan (Gaitasunaren balioa % 10)
- b) Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan (Gaitasunaren balioa % 80)
- c) Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki interneten eskuragarri daudenak), askotariko egoera komunikatiboetan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan (Gaitasunaren balioa % 10)

10.3. Gai zerrenda

<p>1. Hizkuntza komunikazio-prozesuan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-sistema (hizkuntzaren osagaiak eta funtzioak). • Alderdi soziolinguistikoa eta psikolinguistikoa. • Hizkuntzaren erabilerak eta aldaerak. • Estandarizazioa.
<p>2. Testuak komunikazio-prozesuan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testua komunikazio-unitate: testuinguratzea, egituratzea, testuratzea. • Testu-generoak. • Komunikazio espezializatuak: bereizgarriak. • Aldakortasuna.
<p>3. Euskara estandarraren arauak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaltzaindiaren araugintza (arauak eta Hiztegi batua). • Estandarraren estilo zaindu orokorra. • Esparruen araberako estilo-aukerak.
<p>4. Kontsulta-baliabideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gramatikak. • Estilo liburuak.

	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegiak (lexikografikoak, terminologikoak). • Interneteko baliabideak.
--	---

10.4. Metodologia

Ikasleak zein arlotakoak diren kontuan hartuta, irakasgaia ahalik eta praktikoena izan dadin saiatuko da, eta ikasleek hizkuntza-erabiltzaile gisa dituzten (eta izango dituzten) beharretara egokituko da. Helburu horri begira, eskola teorikoak ez dira ariketen eta jarduera praktikoan abiapuntu izango, haien osagarriak baizik.

Gelan egin beharreko ariketez gainera, ikasleek auto-ikasketako eta auto-zuzenketako ariketak ere egin beharko dituzte, beren kabuz. Haien bidez nahi da ikasleek, gogoeta eginda, ikas dezaten bere "arauak" sortzen; ariketa horien gauzatzean, laguntzaile eta gidari izango dute betiere irakaslea, eskoletan zein tutoretza-orduetan. Hein batean, auto-ikasketa bultzatu nahi da, ikasleek nolabaiteko autonomia-maila eskuratu dezaten eta unibertsitatetik irteten direnean hizkuntzaren inguruan sor dakizkiekeen arazoei erantzuteko gauza izan daitezen.

Saio guztiak (eskola magistralak zein praktikoak), ahal dela, informatika-gelan egiten saiatuko da; izan ere, jarduera guztietarako (teorikoak zein praktikoak) Moodle plataforma erabiliko da. Plataforma horretan, ikasleek askotariko materiala eta baliabideak izango dituzte eskura; irakasgaia aurrera eramateko behar duten material guztia (ariketak eta abar), baina baita material osagarria (artikuluak...) eta Web-orri interesgarrietarako estekak ere. Halaber, jardueren egunkaria izango dute ikasleek. Hartan, egunez egun, egindako jarduerak jasoko dira, teorikoak zein praktikoak; hartara, ikasleak, eskolara huts eginez gero, ez du arazorik izango ikasgaiaren hariari jarraitzeko.

10.5. Ebaluazioa

Bi ebaluazio-aukera izango dira:

- **A Aukera:** ebaluazio jarraitua. Hiru ebaluazio-tresna baliatuko dira

EBALUAZIO - TRESNA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA BALIOAK	AZKEN KALIFIKAZIOAREN EHUNEKOA
IKASLEAREN WIKIA	<ul style="list-style-type: none">• Portafolioaren aurkezpena (ordena eta txukuntasuna); ariketa guztiak eginda edukitzea; zuzendutako ariketa guztiak portafolioan jasota edukitzea; ariketak epean bidaltzea (2 puntu).• Ikastaldian zehar egindako oharrak eta zuzenketak kontuan hartzea (2 puntu).	%60

	<ul style="list-style-type: none"> • Kontsulta tresnak ezagutzea eta egokiro erabiltzea (2 puntu). • Testu zuzen eta egokiak sortzea (4 puntu). 	
KONTROL AZTERKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Testa: asmaturiko erantzun zuzenen kopurua (5 puntu). • Testu bat zuzentzea: gutxienez hutsegiteen % 60 atzeman eta zuzendu beharko da (5 puntu). 	% 20
AHOZKO AURKEZPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa: zer iturri eta zenbat erabili diren aurkezpena prestatzeko, informazioaren kalitatea (aurkezpena, osorik edo zati handi batean, dokumentu batetik zuzen hartu izanak ariketa osoaren baliogabetzea ekar dezake) (1 puntu). • Euskarri informatikoa (powerpoint) jarraibideen arabera prestatzea (1 puntu). • Aurkezpenaren oinarri den idazlanaren zuzentasun eta egokitasuna (3 puntu). • Aurkezpena ondo egituratu eta antolatzea eta emandako denborara egokitzea (2 puntu). • Ahozko aurkezpena: ahoskera zaindua eta jariokortasuna (3 puntu). 	%20

• **B Aukera:** azterketa

EBALUAZIO-TRESNA (BUKAERAKO)	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA BALIOAK	AZKEN KALIFIKAZIOAREN EHUNEKOA
---	---	---

AZTERKETA)		
1. TESTA	<ul style="list-style-type: none"> • Asmaturiko erantzun zuzenen kopurua (10 puntu). 	%20
2. TESTU BAT ZUZENTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Testuko arazo linguistikoak identifikatzea (2 puntu). • Arazoak konpontzeko estrategia eta baliabide egokiak proposatzea (2 puntu). • Arazoei irtenbide egokia ematea (6 puntu). 	%20
3. TESTU BAT SORTZEA (IDAZLANA)	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitateko tituludun batengandik espero den zuzentasun eta egokitasun mailako testua sortzea (4 puntu). • Sortutako testuaren kohesioa eta koherentzia (3 puntu). • Irakasgaiaren eskainitako kontzeptuak bereganatu dituztela erakustea (3 puntu). 	%60

Ikastaldiaren hasieran, ikasleek jakinarazi beharko diote irakasleari bi bideetatik zein aukeratu duten ebaluatuak izateko. Ebaluazio jarraitua bultzatuko da; edozein kasutan ere, indarrean dagoen arautegiari jarraikiz, ikasle guztiek izango dute irakasgaiaren kalifikazio osoa amaierako azterketa-proban jokatzeko aukera.

10.6. Nahitaezko materialak

Moodle plataforman eskura egongo diren laburpen, artikulu, Euskaltzaindiaren arau, estilo liburu eta gainerako materialak.

10.7. Bibliografia

10.7.1. Oinarritzkoa

ALBERDI, X., (1999). *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*. EHU

ALBERDI, X. eta Sarasola I. (2001). *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. EHU.

CALSAMIGLIA, H, & A. TUSON (1999): *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel

DINTEL, F. (2005). *Cómo escribir textos técnicos o profesionales. Todas las claves para elaborar informes, cartas y documentos eficaces*. Ed. Alba

EUSKALTZAINDIA (1985-2005). *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak I-VI*. Bilbo: Euskaltzaindia. (http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika)

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritzza.

EZEIZA, J. eta beste (2010). *PREST. Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen esku-liburua*. EHU

GARZIA, Juan. (1997). *Joskera lantegi*. Gasteiz: HAEE-IVAP.

GARZIA, Juan. (2005). *Kalko okerrak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

GARZIA, Joxerra. (2008). *Jendaurrean hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania

HAEE / IVAP (2005). *Galdezka. Euskarazko zalantzak erantzunez*. IVAP.

HAEE / IVAP (2008). *IVAPeko estilo-liburua*. IVAP-HAEE.

KALTZAKORTA, M. (2006). *Prosa komunikagarriago egiten Zenbait proposamen*. UEU

ZABALA, I. (koord.) (1996). *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUko Argitalpen Zerbitzua

10.7.2. Hiztegiak

ELHUYAR (2006). Elhuyar Hiztegia. Elhuyar (3. Argitaraldia)

SARASOLA, I. (2000). Euskal Hiztegia. Donostia: Kutxa

SARASOLA, I. (2005). Zehazki. Gaztelania-Euskara hiztegia. Diccionario castellano-euskara. Alberdania.

10.7.3. Interneteko helbide garrantzitsuak

<http://www.lantalan.com/>

<http://www.euskadi.net/lanhitz>

<http://www.euskara.euskadi.net>

<http://www.ehu.es/azpidazki>

<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es>

<http://www.ehu.es/ehulku/>

<http://www.erabili.com/lantresnak>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.euskaltzaindia.net/>

<http://www.soziolinguistika.org/eralan>

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-euskera/eu>

<http://www.hiztegia.net>